

## ORDENANTZA, LARRIALDIKO LAGUNTZAK NOIZ NORI EMAN ARAUTZEN DUENA

### 1.-Aurrekariak eta xedea.

Deialdi honen xede bakar-bakarra da laguntza ekonomikoak ematea egiazko larrialdi egoera frogatuei aurre egiteko.

### 2.-Xedea.

Gizarte zerbitzuetan maiz mugako egoeretan dauden pertsonak azaltzen dira, eta hainbat arrazoi direla-eta, Gizarte Ongizatearen mende dauden zerbitzu horiek ezin diete konponbiderik eman.

Arrazoi horrengatik eta besterengatik, Altsasuko Udaleko Osasun, Gizarte Ongizate eta Elkartasun Batzordeak erabaki du kontu-sail bat sortzea, larrialdi egoera horiei aurre egiteko.

Gizarte Zerbitzuak ez dira halako egoerei ohartzen bakarrak, eta zenbaitetan laguntza hauendako ebazpenak luzatu egiten dira.

### 3.-Helburuak.

Deialdi honen helburuak dira:

- a) Halako tresna berezi bat eskaintzea, pobrezia -iraunkorra zein aldian aldikoa- jasaten dutenen egoera, bai eta haien kabuz baliatzeko gaitasun gutxi dutenena ere, leuntzeko, gainerako gizarte prestazioen osagarri gisara erabil dadin.
- b) Deserrotzea edo gizarte-baztertzea eragin edo larriagotzen ahal duten egoerak leuntzea.
- c) Udaleko Gizarte Zerbitzuek gizarteratzeko taxuturiko prozesuetan jarduteko baliabide profesionala eta sostengua izatea.

### 4.-Onuradunak.

Deialdi honetan arautzen diren laguntzen onuradun izateko, baldintza hauek bete beharko dira:

1. Erroldaturik egotea gutxienez ere urtebete lehenagotik, salbuespenez epe hori laburtzen ahal bada ere.
2. Diru baliabiderik edo ondare aski ez edukitzea, ez eta egoerari aurre egiteko familiaren aldetik inolako sostengurik ere; familia unitateen dirusarrera gordinek orok, batera harturik, ez dute gaindituko indarra duen lanbide artekoaren gutxieneko soldata halako 1,5.
3. Frogatzea eskatu direla helburu berberetarako administrazioko beste zenbait arlotan ematen dituzten laguntzak, eta horiek ezetsi edo baietsi direla.

#### 5.-Aplikazio esparrua.

Laguntza hauek puntualak eta ordezkatzailleak dira, ez dira aldian behingoak eta bai aldiz borondatearen arabekoak. Profesionalen esku hartzea behar dute: familiarekin batera programaturiko esku hartzea dakarte, baita beste aukera batzuk bilatzea ere, tratamendua beste bide batzuetatik jarraitu ahal izateko, lana dela edo familia arlokoa dela.

Honako hauekin ikusteko duten egoerak jasoko ditu:

- a) Eguneroko mantenu oinarrizko nahikoa.
- b) Behar bezalako teiltupea.
- c) Pentsioak.
- d) Etxebizitzaren alokairua.
- e) Gizarteratzeko edo laneratzeko sostengua.
- f) Adingabeendako arreta.
- g) Gizarte arloko tratamenduetarako laguntzak.
- h) Eritasun larriak.
- i) Larritasun latzeko kasuak.

#### 6.-Larrialdiko laguntzen zenbatekoa.

Familia unitatean laguntza hauek eskatzen dituzten lagunak urtebetez baliatzen ahalko dira, horretarako dirurik dagoen bitartean, muga dela lanbidearteko gutxieneko soldata halako bi.

Salbuespenez, Gizarte Ongizate Batzordeak aurretik aztertuta, laguntza osagarriak ematen ahalko dira (sendagaiak, arropa, etab.).

#### 7.-Laguntzen estaldura.

Aurreko atalaren bigarren paragrafoan adierazitakoa kenduta, ondoko hauek izanen dira:

- a) Arazoa: mantenua.

-Familiaren etxebizitzatik alde egitea, tratu txarrak edo banantzeak direla eta.

-Ekonomia egonkorretan aurreikusi gabeko krisi ekonomikoak: banantzeak, eritasunak, gastu berezi arazoizkoak...

-Beste prestazio batzuek ekarriko luketen aukera egonkorra itxaron bitarteko tartekak: oinarritzko errenta, etxe-lantegi babestuak, enplegu soziala, lan-kontratua...

-Bestelako egoerak, zehazten zailak.

b) Arazoa: ohiko etxebizitzaren kostua.

-Etxebizitzaren alokairua/hipoteka, pentsioa (ohiko etxebizitza), aldi baterako bada.

-Etxebizitza berri baterako alokairu kontratua, hasierako ordainketa berezia dakarrenean eta diru baliabide aski badu etxebizitzaren ohiko ordainketari aurre egiteko.

-Kontzeptu hauengatik diru-laguntzak jaso ahal izanen dira, betiere posible ez bada Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuari eskatzea, honek bere laguntzetarako gaur egun ezarriak dituen irizpideekin (2120/2003 ebazpena).

Prestazioaren zenbatekoa:

-Urtebetean, gehienez ere hilabeteko bi sari, elkarren ondoan edo ez.

c) Arazoa: etxebizitza mantentzea.

-Zorra argindarraren edo uraren horniduran, modu puntualean gertatu bada eta krisi ekonomikoaren ondorioz.

-Edozein horniduratan (argia, gasa, ura) zorra metatzea eta horrek zerbitzua bertan behera uzteko gaztigua ekartzea.

-Oinarritzko ekipamendua.

-Kontzeptu hauengatik diru-laguntzak jaso ahal izanen dira, betiere posible ez bada Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuari eskatzea, honek bere laguntzetarako gaur egun ezarriak dituen irizpideekin (2120/2003 ebazpena).

8.-Jasotako laguntzen itzulera.

Eskuratutako laguntzak osotara edo partez itzuli beharko dira, familia unitatearen egoera hobetuz gero, eta betiere honelakoetan:

a) Justifikatzeko betebeharra betetzen ez denean.

b) Eskatzen ziren baldintzak bete gabe diru-laguntza eskuratzea.

c) Laguntza/diru-laguntza emateko ezarri diren baldintzak ez betetzea.

d) Traba edo uko egitea, onuradunaren daturen bat frogatu edo egiaztatu behar denean.

9.-Eskaera eta ebazpena.

Eskaerak horretarako onesten den ereduan eginen dira, gizarte zerbitzu oinarrikoetan. Horiek, berriz, Gizarte Ongizate Batzordeari igorriko dizkiote, presaka aztertuko baititu.

Laguntza hauen premia larria dela eta, ebazpena gehienez ere astebetean tramitatu eta emanen da.